

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

2363

AGINDUA, 2012ko maiatzaren 9koa, Kulturako sailburuarena, gazteak balio demokratikoetan eta bakearen kulturaren hezteko programak eta jarduerak garatzeko diru-laguntzak emateko arauak ezartzeko dena.

Kultura Sailak, beste zenbait erakunderekin batera, lanean dihardu gazteak balio demokratikoetan eta bakearen kulturaren hezteko programak suspertzeko, Euskal Autonomia Erkidegoan. Helburu hori lortu nahian, xedapen honetan ezarritako arloren bateko jarduerak burutzen dituzten pertsona juridiko publiko zein pribatuei laguntzak eskaintzeko bideak ezartzen dira agindu honen bitartez.

Agindu honek lagundu nahi du gazteak balio demokratikoetan eta bakearen kulturaren hezteko programak zabaltzen. Horretarako, Kultura Sailak beste tresna baten gisara mahairatzen du laguntza hori, hain zuzen ere, gazteak eta beste zenbait sektore berezi gizarlean integra daitezen lagunduko duena. Laguntza horren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeei aukera emango zaie balio demokratiko eta bakearen kulturako programak burutzeko, betiere beren kabuz egindako diseinuaren arabera, eta, aldi berean, ez zaie muga estuegirik ezarriko, arlo horretan lanean diharduten agenteen ekintza berriak eta berriztatzaileak ez oztopatzeko.

Hori horrela izanik, deialdi honen bitartez bi helburu lortu nahi dira batez ere: alde batetik, diru-laguntzen deialdi guztietan izan behar diren objektibotasun, lehia eta publikitate printzipioak bermatzeko gutxieneko oinarri legalak ezartzea eta, bestetik, Kultura Sailak diru publikoak era egokian erabiltzen direla jakin ahal izateko bideak finkatzea.

Adierazitako guztia aintzat hartuta, gazteak balio demokratikoetan eta bakearen kulturaren hezteko programak egitea xede duten erakundeentzako laguntza-esparrua finkatu da; hain zuzen ere, urteko jarduera edo programa bat, zorroztasunez, edozein ikuspuntutatik burutu nahi duten erakunde guztiak diru-laguntzez baliatu ahal izateko moduko esparru zabala. Muga bakarra, Euskal Autonomia Erkidegoak urtealdi bakoitzerako dituen aurrekontuetan arlo honetara zuzendutako diru-kopurua bera izango da.

Horiek denak aintzat izanik, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen bidez, arauak ezarri nahi dira, gazteak balio demokratikoetan eta bakearen kulturaren hezteko jarduerak 2012. urtean burutzeko diru-laguntzak emateko.

Diruz lagunduko diren jarduerak ardura handiz errespetatu behar dituzte bizitzeko eskubidea eta 1948ko Adierazpen Unibertsalean jasotako giza-eskubide guztiak, bai eta 1966ko Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Itunean eta 1966ko Ekonomia, Gizarte eta Kulturako Eskubideen Nazioarteko Itunean jasotakoak ere; horrenbestez, terrorismoa goratu edo justifikatzen duten jarduerak baztertu egingo dira.

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

Aurreko artikuluan aipatutako helburua betetzeko baliabide ekonomikoak aurrekontuetan xede horretarako ezarritako kredituetatik etorriko dira, eta horien osoko zenbatekoa 120.000 eurokoa izango da. Diru-kopuru hori handitu ahal izango da, lehenengo Xedapen Gehigarrian ezarritakoari jarraituz.

3. artikulua.– Onuradunak.

1.– Agindu honetan ezartzen diren diru-laguntzak jaso ditzaketenak hauexek dira: Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako pertsona juridikoak, publikoak zein pribatuak izan, irabazi-asmorik gabekoak eta hurrengo artikuluan ezarriko diren alorretan Euskal Autonomia Erkidegoko gazteei zuzendutako suspertze– eta zabaltze-jarduerak burutzen dituztenak.

2.– Ezingo dute deialdi honetako diru-laguntzarik eskatu laguntza publikoak lortzeko zigor administratibo edo penalik duten pertsona fisiko zein juridikoez, ezta ere horretarako gaitasuna kentzen dien legezko debekuren bat jasota daukatenez ere, sexu-bereizkeriaren ziozko zigor administratibo edo penalak dituztenak barne hartuta, hala xedatuta baitago Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen Azken Xedapenetatik seigarrenean.

3.– Edozein kasutan, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.4 artikulua araberan (testu bategin hori azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bitartez onartu zen), Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra edo erakunde autonomiadunak ezaugarri bereko beste laguntza edo diru-laguntzaren batzuk eman izana dela eta horiek itzultzeko edo zigortzeko prozesuren bat oraindik ere izapidetzen ari bada, prozesu hori amaitu egin beharko da onuradunei diru-laguntzak edo laguntzak eman eta ordaindu ahal izateko.

4. artikulua.– Diru-laguntza izan dezaketen arloak.

1.– Balio demokratikoak eta bakearen kultura suspertzeko heziketak, deialdi honi dagokionez, bizikidetzaz erraztuko duten balio demokratikoak sustatzea hartuko du bere baitan; eta, bestek beste, honako hauek bultzatuko ditu: berdintasuna, justizia, parte-hartzea, aniztasuna, tolerantzia, elkarrekiko errespetua, gatazkak elkarriketa bidez ebazteko modu parte-hartzailea, eta giza eskubideen defentsa.

2.– Gazteentzat ondoko arloetan garatzen diren urteko lurraldez gaineko programek eta jarduerak jakinek izan dezakete diru-laguntza. Hona hemen arloak:

a) Balio demokratiko eta bakearen kulturarako hezkuntza suspertzea helburu nagusi duten programak eta jarduerak.

b) Balio demokratiko eta bakearen kulturaren heziketa duten pertsonak prestatzeko jarduerak.

c) Balio demokratiko eta bakearen kulturarako hezkuntza bereziki zabaltzeko jarduerak.

3.– Deialdi honen ondorioetarako, lurraldez gaindikotzat joko dira argi eta garbi lurralde historiko bateko baino gehiagoko destinatzaileak dituztenak. Gorabehera hori jardueraren fase guztietan adierazi beharko da: bai planifikazioan eta prestakuntzan, inplementazioan eta, azkenik, ebaluazioan eta jarraipenean. Ustekabe hutsez lurralde bateko baina gehiagoko parte hartzaileak egoteak berak ez du esan nahi jarduerak lurraldez gaindikotzat har daitezkeenik.

4.– Eskabide batean –arloan gorabehera– jarduera bat baino gehiago sartzen bada, eta horiek izaera ezberdinekoak badira, banaka azaldu behar da jarduera bakoitzari dagokionez zein

helburu, hartzaile eta diru-sarrera eta gastu izango dituen. Izaera ezberdinekoak direla ulertuko da, helburu edo hartzaile ezberdinak izateaz gainera, finantza-bide propio eta bereizi bat edo gehiago dituztenak.

5. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen gastuak eta aurrekontua.

1.– Ondorengoak joko dira agindu honetan jasotako araudiaren babesean diruz laguntzeko moduko gastutzat: erakunde eskatzaileak aurkeztutako jardueraren gaineko aurrekontu banakatuan eta xehatuan agertzen diren gastuak, baldin eta ezbairik gabe jarduera garatzearekin lotura badute. Diruz laguntzeko moduko gastuak bi multzotan banatzen dira: zuzenak eta zeharkakoak.

2.– Diruz lagundutako gastu zuzenak. Diruz lagundutako gastu zuzenak dira, aurreko baldintzak aintzat hartuta, dena delako programa edo jarduera gauzatzearekin zuzenki loturiko kostu berariazkoak eta, beraz, programa edo jarduerari zuzenean kargatu dakizkiokeenak. Gastu zuzenen barruan, jarduera zabaltzeko gastuen diru-kopuruak ez du gaindituko, programa edo jarduerari emango zaion diru-laguntza zehazterakoan, programa edo jardueraren aurrekontuaren % 20.

3.– Diruz lagundutako zeharkako gastuak. Diruz lagundutako zeharkako gastuen barruan programa edo jardueraren aurrekontuaren % 10erainoko kopurua sartu ahal izango da, betiere onuradunaren kostu administratibo orokorren zati bat, behar bezala justifikatuta, programari edo jarduerari eslehi dakiokenean.

4.– Inbertsio-gastuak ez dira inola ere diruz lagunduko. Zergei loturiko diru-zenbatekoak laguntzeko modukotzat joko dira, eskatzaileak berak benetan ordaintzen dituenen. Ez da laguntzarik emango zeharkako zergen ondoriozko gastuetarako, berreskuratu edo konpentsatu ahal badira.

5.– Artikulu honen arabera diruz ez laguntzeko moduko gastutzat jotzen direnak agertzen badira erakunde eskatzaileak aurkezten duen aurrekontuan, edota, laguntzeko modukoak izanik ere ezarritako muga gainditzen badute, Epaimahai Kalifikatzaileak ezabatu edo araztu egingo ditu gastuok, diru-laguntza kalkulatzeko beharrezkoa den oinarritzko gastu-aurrekontua zehaztu ahal izateko.

6. artikulua.– Jarduerak baztertzea.

Agindu honen aplikazio-esparrutik kanpo gelditzen dira jarduera hauek:

a) Izaera edo helburua kontuan hartuta, Gazteria Zuzendaritzaren jarduera-esparruekin zuzeneko zerikusirik ez dutenak.

b) Lurralde historiko bakar bateko gazteei zuzendutakoak direnak.

c) Xede bakarra ondare bilaka daitezkeen elementuetan inbertsioak edo gastuak egitea duten jarduerak.

d) Autofinantziazioa kostu osoaren % 30 baino txikiagoa denean, hau da, erakunde eskatzaileak jarduerara bideratuko dituen diru-sarrera propioak jarduera horren aurrekontu osoaren % 30 baino txikiagoak direnean. Diru-sarrera propiotzat hartuko dira kapitalean administrazio publikoen partaidetzarik ez duten erakunde pribatuek egindakoak.

e) Baldin eta gainfinantzaketa deuseztatzeko asmoz eskatutako kopuruaren gainean egindako zuzenketaren ondorioz diru kopurua hutseraino murrizten bada. Hona gainfinantzaketatzat zer

ulertzen den: aurreikusitako gastuak gainditzen dituzten aurreikusitako diru-sarrerak (eskatutako diru-laguntza guztiak barne).

f) Helburutzat balio demokratikoak eta bakearen kultura suspertzea ez dutenak, berariaz balio demokratikoak eta bakearen kultura zabaltzera zuzenduta ez daudenak, edo balio demokratikoetan eta bakearen kulturaren heziketa duten pertsonak prestatzeko jarduerak ez direnak.

g) Inplizituki beka edo bidaia-poltsa baten eskaria dutenak.

h) Hartzaileak nortzuk diren argi eta garbi identifikaturik ez dutenak.

i) Eskabide batean jarduera bat baino gehiago sartu eta horiek izaera ezberdinekoak diren kasuetan, ez bada banaka azaltzen jarduera bakoitzari zein helburu, hartzaile eta diru-sarrera eta gastu dagokion.

j) Eskola-programen jarduera osagarriak.

7. artikulua.– Epaimahai Kalifikatzailea.

1.– Aurkeztutako eskariak aztertu eta balioesteko, Epaimahai Kalifikatzaile bat osatuko da. Hona hemen horren kideak:

– Lehendakaria: Ignacio Rodríguez Puertas, Kultura Saileko Gazteriako zuzendaria. Ordezkoa: Arantza Urizar Sarasua, Gazteria Zuzendaritzako teknikaria.

– Bokala: Cándido Hernández Garduño, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria. Ordezkoa: Mónica García Celaá, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko aholkularia, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak izendatua.

– Bokala: Ines Ibañez de Maeztu Izaguirre, Justizia eta Herri Administrazioa Saileko Giza Eskubideen zuzendaria. Ordezkoa: Laura Sagastizabal, Giza Eskubideen Zuzendaritzako teknikaria, Giza Eskubideen zuzendariak izendatua.

– Bokala: Batiste Ezeiza Sánchez, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko presidentea. Ordezkoa: Iván Barrio Díez, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko teknikaria.

– Bokala: Nestor Arana Arabaolaza, Kultura Saileko Gazteria arduraduna, Gazteria zuzendariak izendatua. Ordezkoa: Francisco Javier Gutiérrez Páramo, Gazteria Zuzendaritzako teknikaria, Gazteriako zuzendariak izendatua.

– Idazkaria: Bakarne Zuazua Astarloa, Kultura Saileko Gazteria Zuzendaritzako teknikaria, Gazteria zuzendariak izendatua. Ordezkoa: Josu Gerediaga Egurrola, Kultura Saileko Gazteria Zuzendaritzako teknikaria, Gazteriako zuzendariak izendatua. Hitza izango du, baina botorik ez.

2.– Eskarien azterketa eta ebazpen-proposamena: 9. artikuluan aipatzen diren balorazio- eta esleipen-irizpideak kontuan hartuta, Epaimahai Kalifikatzaileak ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeari.

8. artikulua.– Laguntzak banatzeko modua.

1.– Deialdi hau lehiaketa bidez ebartziko da eta, beraz, arlo bakoitzean aurkeztutako eskabideak aztertu eta alderatu egingo dira diru-laguntzak ematerakoan. Eskabideak lehentasunen arabera sailkatu eta ordenan jartzeko orduan, segidan ezarritako hautaketa- eta balorazio-irizpideak hartuko dira aintzakotzat. Nolanahi ere, laguntza jasotzeko beharrezkoa izango da gutxienez 20 puntu jasotzea. Kasu bakoitzean eman beharreko diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko, eskatutako

diru-kopuruaren gaineko ehunekoa esleitzea proposatuko du Epaimahai Kalifikatzaileak, hain zuzen, ezarritako irizpideak aplikatzearen ondorioz lortzen den ehunekoa. Horretarako, honako formula hau erabiliko da:

$$100 \times (\text{puntuazioa} - 20) / 50$$

Puntuazioa 70 edo hortik gorakoa bada, eskatutako diru-kopuru osoa esleitzea proposatuko da. Kasu guztietan, 10. artikuluan diru-laguntzen zenbatekoa eta mugei buruz ezarritakoa bete beharko da.

Lortutako emaitza zenbaki hamartarra bada, hurbilen duen zenbaki osoarekin biribilduko da.

2.– Aurreko puntuan adierazitakoa aplikatu, eta diru-laguntza guztiek batera gainditzen badute jarritako diru-baliabideak, proportzionalki murriztuko dira laguntzen kopuru horiek.

3.– Epaimahai kalifikatzaileak ebazpen-proposamenean zehaztu egingo du zein jarduerak jasoko duen laguntza eta zeinek ez. Berdin egingo du Epaimahai Kalifikatzaileak eskabide berean izaera ezberdinetako jarduerak badaude eta denak laguntzen ez badira edo denak baztertzen ez badira, hots, epaimahai kalifikatzaileak ebazpen-proposamenean zehaztu egingo du zein jarduerak jasoko duen laguntza eta zeinek ez.

9. artikulua.– Balorazio-irizpideak.

Aurkeztu diren eskabideei emango zaien puntuazioa, 8.1 artikuluan aipatzen dena, honako irizpide hauek aplikatu ondoren lortzen duten arabera izango da:

a) Erakunde eskatzaileari dagokionez:

a.1.– Erakunde eskatzaileak jarduerara bideratuko dituen diru sarrera propioen eta jarduera horren aurrekontu osoaren arteko proportzioa. Erakundeak berak jarritako baliabideen portzentajea zenbat eta handiagoa izan, orduan eta puntu gehiago. Gehienez 10 puntu. Horren ondorioetarako, diru-sarrera propioztat hartuko da herri-administrazioen partaidetzarik ez duten erakunde pribatuek emandako dirua.

a.2.– Eskabidea egin duen erakundearen jarraitutasuna, egonkortasuna eta kaudimena, proposaturiko jarduera edo programa garatuko den arloari dagokionez. Arlo honek, gehienez, 10 puntu har ditzake balorazioan.

b) Proposaturiko programa edo jarduerari dagokionez:

b.1.– Proposatutako programa edo jarduerak hartzen duen hedapen esparrua. Puntuazio handiagoa izango dute hedapena Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetan duten jarduerak. Gehienez 15 puntu.

b.2.– Jarduerak edo programak balio demokratiko eta bakearen kulturarako hezkuntza sustatzen edo zabaltzen laguntzea. Gehienez 15 puntu.

b.3.– Jarduera edo programa garatzerakoan bai giza baliabideei dagokienez bai baliabide materialei dagokienez, euskara erabiltzea. Gehienez 12,5 puntu.

b.4.– Genero-ikuspegia, emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak modu sistematikoan aintzat hartzea proiektua garatzerakoan eta, horretarako, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduera zehatzak txertatzea. Gehienez 12,5 puntu.

b.5.– Jarduerak edo programak proiektuaren arabera jorratu beharreko alorrean duen originaltasuna eta jarduera edo programa burutuko den inguruan antzeko besterik ez egotea. Gehienez 12,5 puntu.

b.6.– Jardueraren edo programaren eraginez, ustez, onuradun izan daitekeen pertsonen kopurua. Gehienez 12,5 puntu.

10. artikulua.– Diru-laguntzen zenbatekoa eta mugak.

Agindu honen bidez ezartzen diren diru-laguntzek gehienezko muga bat izango dute, hain zuzen ere, dagokion laguntza-eskabidean aurkeztutako aurrekontuaren ehuneko hirurogeita hamarra. Gauzatutako aurrekontua aztertuta, emandako diru-laguntzak gastuen ehuneko hirurogeita hamarra gainditzen badu, emandako diru-laguntza murriztu egingo da kopuru horretara heldu arte.

11. artikulua.– Diru-laguntzen bateragarritasuna.

Agindu honetan adierazitako diru-laguntzak, beste erakunde eta enpresa publiko zein pribatuek helburu berberaz emandako beste laguntza batzuekin bateragarriak izango dira, betiere, 6. artikulua d) atalean adierazitako autofinantziazio-muga errespetatuz eta gainfinantzaketarik gertatzen ez bada. Gainfinantzaketa gertatuz gero, eman beharreko diru-laguntzatik murriztu egingo da dagokion kopurua, gehienezko mugara iritsi arte.

12. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Entitate interesdunek bide elektronikoak erabili ahal izango dituzte prozedura honetako izapideak eskatzeko, kontsultatzeko eta bideratzeko.

2.– Izapidetze elektronikoa honako lege-arau hauetan araututa dago: 2007ko abenduaren 18ko 232/2007 Dekretua, bide elektroniko, informatiko eta telematikoek administrazio-prozeduretan duten erabilera arautzen duena; 2008ko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoa, eta e-Administrazioarako Plataforma Teknologikoa – Platea– ezartzen duen Informatika eta Telekomunikazioetako zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpena.

3.– Eskaerak, erantzukizunpeko adierazpenak, justifikazioak eta gainerako ereduak, bai bide presentziala erabiliz bai bide elektronikoa erabiliz, nola izapidetu behar diren azaltzen dituzten argibideak euskadi.net-en honako helbide honetan daude ikusgai: https://www.euskadi.net/y22-izapide/eu/contenidos/ayuda_subvencion/12bakea/eu_0/11bakea.html.

4.– Eskabidea egiteko eta dokumentazioa aurkezteko bide horietako bat erabiliz gero – presentziala edo elektronikoa–, horrek ez du esan nahi bidez aldatu ezin denik prozeduraren ondorengo izapideetan, alegia, edonoiz aldatu daiteke bidea.

Eskabidearen ondoko izapideak, bide elektronikoa erabiliz, hemen egin daitezke: <http://www.euskadi.net/misgestiones>.

13. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea eta formalizazioa.

1.– Deialdi honetarako eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu honek eragina duen egunetik aurrera.

2.– Eskabideak Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Gazteriako zuzendariari zuzenduko zaizkio (Donostia kalea, 1; 01010 Vitoria-Gasteiz).

3.– Eskabideak bertatik bertara aurkez daiteke, behar bezala beteriko eskaera-orri normalizatu baten bidez, Gazteria Zuzendaritzan (Donostia kalea, 1; 01010 Vitoria-Gasteiz), Herritarrentzako Arretarako Guneko bulegoetan (Zuzenean), Kulturako lurralde-zerbitzuetan, edota 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako edozein bidetatik (30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena). Eskaera-orria euskadi.net guneko honako helbide elektroniko honetan eskura daiteke: https://www.euskadi.net/y22-izapide/eu/contenidos/ayuda_subvencion/12bakea/eu_0/11bakea.html.

Eskabideak bide elektronikoa erabiliz ere aurkeztu ahalko dira, aipatutako euskadi-net gune horretan.

4.– Pertsona eta erakunde eskatzaileek nahi duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dute eskaera, atxikitako egiaztagiriekin batera. Halaber, eskatzaileak aukeratzen duen hizkuntza hori erabiliko da eskabidearen ondoriozko jarduketetan eta prozedura osoan, Euskararen Erabilpena Arautzen duen 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluek xedatzen duten moduan.

14. artikulua.– Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Eskabidea, 15. artikuluan adierazitako erantzukizunpeko adierazpenak barne, euskadi.net gune elektronikoan ere eskuragarri dagoen inprimaki normalizatuan beteko da.

2.– Eskaerarekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Entitatearen ordezkariak, bide presentziala erabilita, ez badu bere oniritzia ematen Barne Ministerioak nortasun-datuak benetakoak direla egiazta dezan, datuok paperean (kopiak) edo euskarri elektronikoan (pdf formatuko kopia eskaneatua, sinadura elektronikoarekin) aurkeztu beharko ditu, eta honako honen bidez frogatuko du hori: Nortasun Agiri Nazionala, pasaportea edo pertsona fisikoa identifikatzeko balio dezakeen antzeko agiriren bat.

b) Proiektuari buruzko memoria zehatza, programa edo jardueraren diru-sarreraren eta gastuen aurrekontua barne, I. eranskineko ereduaren arabera, euskadi.net guneko honako helbide honetan eskuragarri dagoena: https://www.euskadi.net/y22-izapide/eu/contenidos/ayuda_subvencion/12bakea/eu_0/11bakea.html

3.– Gainera, proiektua hobeto baloratzeko entitate eskatzaileek egokitzen jotzen duten beste edozein dokumentu ere aurkeztu ahalko da.

4.– Espedientea osatzeko beharrezkotzat jotzen dituen dokumentuak eskatu ahal izango dizkio Gazteria Zuzendaritzak entitate eskatzaileari, eta entitateak aurkeztutako datuak egiaztatzeko behar diren frogak egin ahalko ditu.

15. artikulua.– Entitate eskatzaileen betebeharrak/baldintzak egiaztatzea.

1.– Entitate eskatzaileak egunean izan behar ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak, indarrean dagoen legediak agindu bezala. Deialdi honen organo kudeatzaileak egiaztatuko du, automatikoki eta behar hainbat aldiz, diru-laguntza eskatu duten entitateek Gizarte Segurantzarekiko baldintzak betetzen dituztela, eta horretarako ez du eskatzaile horien oniritzia beharko, halaxe xedatzen du-eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen 1997ko azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak. Zergak Nafarroan ordaindu behar dituztenen kasuan, zerga guztiak ordainduta dituztela frogatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira.

2.– Eskatzaileak baimena eman ahal izango du laguntzak kudeatzen dituen organoak gainerako datu edo dokumentuak eskuratu edo egiaztatu ditzan, bai bide presentziala erabiltzen denean bai elektronikoa erabiltzen denean ere, Administrazio Publikoak egiaztapen, kontrol eta ikuskaritzaren alorrean dituen eskumenen kalterik gabe.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginak ezartzen duenez (1997ko azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartua), erantzukizunpeko adierazpen bidez egiaztatuko dira honako betebeharrak hauek:

– Xede bera duten eta bestelako administrazio edo erakunde publiko zein pribatuei eskatutako eta, hala badagokio, haietatik jasotako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideen berri ematea.

– Erakunde eskatzaileak ez izatea diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigor edo administrazio-arloko zigorrik, eta ez izatea laguntza horiek jasotzeko ezgaitzen duten lege-debekuen eraginpean, beren beregi Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko azken xedapenetako seigarrenaren arabera sexu-diskriminazioa egin izanagatiko lege-debekuen eraginpean.

– Entitatea dagokion erregistroan legez eratuta eta inskribatuta egotea.

– Eskabidean eta dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak direla adieraztea, eta laguntza hauen onuradun izateko indarrean den araudian ezarritako betekizunak konplitzen dituela adieraztea.

Erantzukizunpeko adierazpen bati eransten zaion datu, azalpen edo dokumenturen bat zuzena ez bada, edo faltsua bada, edo haietako bat falta bada, prozedura etengo da horren berri jakin bezain laster, gerta daitezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak aparte utzi gabe. Gainera, gorago azaldutakoa adierazteko ematen duen ebazpenean Administrazio Publikoak ezarri ahal izango du interesdunak diru-laguntza itzuli behar duela, bidezkoa izanez gero.

4.– Erakunde eskatzaileak Ekonomia eta Ogasun Sailaren Hirugarrenen Erregistroan alta emanda egon beharko du diru-laguntzaren ebazpena eman baino lehen. Erregistratu gabe badago Ekonomia eta Ogasun Saileko Hirugarrenen Erregistroan, edota Erregistroan dauden bere bankuko datuak aldatu nahi baditu http://www.euskadi.net/r33-2288/eu/contenidos/autorizacion/alta_terceros/eu_7999/hirugarrenaren_alta.html helbidean eskuragarri dagoen formularioa erabili beharko du.

16. artikulua.– Kudeaketa-organoa.

Gazteria Zuzendaritzak kudeatuko ditu deialdi honetako diru-laguntzak.

17. artikulua.– Akatsak zuzentzea.

Ikusten bada eskabidea onartzeko eskatzen den dokumentazioan zerbait falta dela edo forma-akatsak daudela, edo balorazioa egiteko aurkeztu diren dokumentuetan akatsak daudela, hamar egun balioduneko epea emango zaio interesdunari akatsa zuzentzeko edo aurkeztu beharreko agiriak aurkezteko. Era berean, ohartarazi egingo zaio ezen, epe hori igaro eta zuzenketarik egin ez bada, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, aurrez jakinaraziko zaion ebazpen baten bidez, edo dagokion izapidea egiteko eskubidea galduko duela.

18. artikulua.– Ebazpena.

1.– Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak emango du deialdi honetako diru-laguntzak esleitzeko ebazpena, Epaimahai Kalifikatzailearen proposamena ikusita.

2.– Ebazpen hori erakunde interesdun guztiei jakinaraziko zaie, hiru hilabeteko epean, agindu hau argitaratu eta biharamunetik. Ebazpen horrek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, haren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkez diezaioke Kultura sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Era berean, emandako diru-laguntzen eta erakunde onuradunen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, guztiek horren berri izan dezaten.

3.– Aurreko paragrafoan aipatutako hiru hilabeteko epe hori amaituta erakunde interesdunak jakinarazpenik jaso ez badu, eskatutako diru-laguntza ezetsizat jo dela ulertuko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako ondorioetarako.

19. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

Deialdi honetan arautzen diren diru-laguntzen onuradunek betebeharrak hauek bete behar dituzte:

a) Emandako diru-laguntza onartzea. Ildo horretatik, pertsona/erakunde onuradunak diru-laguntza eman zaiola adierazten duen jakinarazpena jaso eta hamabost eguneko epean berariaz uko egiten ez badio, onartu egin duela ulertuko da.

b) Diru-laguntza agindutako helburu zehatzerako erabiltzea.

c) Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epategiari diru-laguntzen erabilera kontrolatzeko behar duten informazio guztia ematea.

d) Agindu honetan adierazitako diru-laguntzak jasotzen dituzten erakundeek berariaz aipatuko dute Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Gazteria Zuzendaritzaren laguntza izan dutela, diru-laguntza emateko ebazpenaren berri dutenetik hasita diruz lagundutako jarduera edo egitaraua dela eta argitaratzen dituzten egitarau, iragarki-kartel, argazki eta idatzizko zein entzunezko gainerako material guztietan. Material horiek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan argitaratu beharko dira. Gainera, diruz lagundutako jardueraren ondorioz sortzen diren liburu, liburuxka edo kartelen ale bat aurkeztu behar dute beren kontura edo, bestela, horien kopia euskarri fisiko edo magnetikoan, materialaren izaera edo euskarriaren egokitasunaren arabera. Konpromiso honetatik salbuetsita egongo dira behin jarduera bukatuta eskabidea aurkeztu eta diru-laguntza jasotzen duten erakundeak, baita diru-laguntza eman zaiela jakinarazten dien komunikazioa behin jarduera bukatuta jasotzen duten erakundeak ere.

e) Diruz lagundutako jarduerak edo programak ordaindu behar den zerbitzu edo produkturen bat eskaintzen badu, erakunde onuradunak abantailak eskainiko dizkie, batez ere ekonomikoak, Gazte-txartela dutenei.

f) Diruz lagundutako jardueran edo programan gorabeheraren bat gertatuz gero, organo kudeatzaileari jakinarazi beharko zaio. Organoak, hala dagokionean, behar diren egokitzapenak egingo ditu, indarrean dagoen araubidearen arabera.

20. artikulua.– Diru-laguntzaren ordainketa.

Diru-laguntzaren ordainketa bi zatitan egingo da: lehen zatian, diru-laguntzaren ehuneko berrogeita hamar ordainduko da Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen onespenean.

ebazpena jakinarazi eta bi hilabeteko epean eta, bigarrenean, hurrengo ekitaldian, gainerako kopurua ordainduko da, egindako programa edo jarduera hurrengo artikuluan ezarritakoari jarraituz justifikatu ondoren.

21. artikulua.– Diru-laguntza justifikatzea.

1.– Behin lagundutako jarduerak bukatu eta gero eta betiere hurrengo urtealdiko martxoaren 1a baino lehen, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute diru-laguntza jasotzen duten entitateek:

a) Buruturiko jarduera edo egitarauari buruzko txosten zehatza, diru-sarreraren eta gastuen gauzatutako aurrekontua barne II. eranskineko ereduaren arabera, euskadi.net guneko honako helbide honetan eskuragarri dagoena: https://www.euskadi.net/y22-izapide/eu/contenidos/ayuda_subvencion/12bakea/eu_0/11bakea.html.

b) Diruz lagundutako jarduerak sortu dituen gastuak justifikatzen dituen dokumentazioa.

Hala ere, erakunde onuradunek aurkeztu duten gastuen aurrekontu osoa justifikatzen duten gainerako fakturak aurkeztuko dizkiote kudeaketa-organoari, hala eskatzen badu, hiru hilabeteko epean, aurkezteko epea amaitzen denetik kontatzen hasita.

Toki-erakundearen kasuan, diru-laguntza izan duten jarduerak sortu dituen gastuak justifikatzen dituen dokumentazioa organo eskudunak emandako ziurtagiria baino ez da izango. Ziurtagiri horretan idazkariak edo kontu-hartzaileak diru-laguntzaren xedea eta helburua beteta daudela adieraziko du eta horretarako erabili diren zenbatekoak zehaztuko ditu, bereizita adieraziz zein izan diren erakunde eskatzailearen ekarpenei dagozkionak eta zein diren beste edozein pertsona fisiko edo juridiko publiko zein pribatuen ekarpenei dagozkionak.

c) Jardueraren egitarau, iragarki-kartel, argazki eta material idatzizko, entzunezko eta grafikoaren zenbait ale, erabilitako hizkuntza guztietakoak. Horietan guztietan Kultura Sailaren babesaren berri eman beharko da.

2.– Justifikazioak bertatik bertara aurkez daitezke, behar bezala beteriko eskaera-orri normalizatu baten bidez, Gazteria Zuzendaritzan (Donostia kalea, 1; 01010 Vitoria-Gasteiz), Herritarrentzako Arretarako Guneko bulegoetan (Zuzenean), Kulturako lurralde-zerbitzuetan, edota 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako edozein bide erabiliz (30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena). Eskaera-orria euskadi.net guneko honako helbide elektroniko honetan eskura daiteke: https://www.euskadi.net/y22-izapide/eu/contenidos/ayuda_subvencion/12bakea/eu_0/11bakea.html.

Justifikazioak bide elektronikoaren bidez ere aurkeztu ahalko dira, gune honetan: <http://www.euskadi.net/misgestiones>.

22. artikulua.– Likidazio-ebazpena.

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira –betiere diru-laguntzaren xedea bete bada– edo beste entitate publiko zein pribatuetatik beste laguntzarik jaso bada, laguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da. Horretarako, Gazteria zuzendariak bidezko likidazio-ebazpena emango du esleitutako diru-laguntzaren zenbatekoa doitzeko, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritako prozedura erabiliz (Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorren pentzutan ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua).

23. artikulua.– Ez-betetzeak.

1.– Hauek izango dira ez-betetzeak:

a) Jasotako diru-laguntza osoa edo zati bat agindu honetan adierazitako jardueraz bestelakoetan erabiltzea.

b) Agindu honetan edo laguntza emateko egintzan adierazitako betebeharrak ez betetzea.

c) Diru-laguntzaren likidazioa egiteko ebazpenean adierazitako zenbatekoa epearen barruan ez itzultzea (hala badagokio).

d) Xedapen orokorretan nahitaez bete beharrekotzat jotako beste edozer ez betetzea.

2.– Ez– betetzeren bat gertatuz gero, jasotako zenbatekoak eta legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkio, betiere azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren eta abenduaren 17ko 689/1991 Dekretuaren arabera (hurrenez hurren, Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua eta Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorren pentzutan ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua).

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.– Eskatutako diru-laguntzaren zenbateko osoa kontuan hartuta, 2. artikuluan ezarritako zenbateko globala aldatu ahal izango da, baldin eta Kultura Sailaren beste programa batzuk gauzatu ondoren aurrekontuetako izakinak agortu ez badira. Aldaketa hori eskabideei buruzko erabakia hartu aurretik egin beharko da. Gazteria zuzendariaren ebazpen baten bitartez emango zaio publizitatea horri.

Bigarrena.– Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorritik, deialdi honen tramitazioan jasotako datu pertsonalak, parte-hartzaileek erabiltzea eta argitaratzea baimenduko dituztenak, fitxategi batean jasoko dira. Fitxategi honen helburua deialdi honetako diru-laguntzak eta deialdi honekin zer ikusia duten beste edozein prozedura edo espediente administratiboa kudeatzea izango da, eta baita deialdi honetara aurkeztu diren pertsonen deialdiaren garapenari buruz informatzea ere. Fitxategi honen arduraduna Kultura Saileko Gazteria Zuzendaritza da. Lege horretan adierazitako sarbide, zuzenketa, ezabatze eta aurkatze eskubideak erabiltzeko Kultura Saileko Zerbitzu Zuzendaritzara jo beharko da, helbide honetara: Donostia kalea, 1; 01010 Vitoria-Gasteiz.

Halaber, deialdi honetan parte hartu duten pertsonen fitxategian dauden datu pertsonalak Euskal Autonomia Erkidegoko beste herri-administrazioei uzteko baimena ematen dute, deialdi honen xede berdinetarako bakarrik eta, Gazteria Zuzendaritzari baimena ematen diote beste erakunde publiko batzuetan aurkeztutako dokumentuen benetakotasuna egiaztatzeko.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokete Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta biharamunetik hasita. Bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salan, bi hilabeteko epean, agindua argitaratu eta biharamunetik hasita.

Bigarrena.– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko maiatzaren 9a.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.